

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-19 Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-19

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBEKOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BIGARREN HEZKUNTZA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	DBH1
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	Zientziarako konpetentzia Konpetentzia matematikoa		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Olalla Martínez Antón	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018/19

Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>Unibertsoa eta eguzki sistema</p> <ul style="list-style-type: none"> - Unibertsoaren, galaxien eta izarren jatorriari buruzko eredu nagusiak deskribatzea. · Eguzki sistemaren ezaugarriak eta haren osagaiak (Eguzkia, planetak, sateliteak, asteroideak, kometak eta meteoritoak) ezagutzea. · Metodologia zientifikoa. Honako ezaugarri nagusi hauek ditu: behaketa, arazoak planteatzea, esperimintatzea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko. · Ikerketa proiektua: Eguzki-sistemari buruz informazioa bilatzea, powerpoint egitea eta aurkeztea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1 . Ea ezagutzen dituen unibertsoaren sorreraz eta galaxien sorkuntza eta bilakaerari buruzko ideia nagusiak. MGZTOG 2 . Ea azaltzen duen eguzki sistemaren antolaketa, eta planeta sistema horri buruz Historian zehar izan diren ikuskeretako batzuk MGZTOG 3 . Ea alderatzen dituen eguzki sistemako hainbat planetaren ezaugarriak, eta ea bilatzen duen zer lotura duten ezaugarriok eguzki sisteman duten posizioarekin. MGZTOG 4 . Ekokatzen duen Lur planeta eguzki sisteman MGZTOG 5 . Ea egoki erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan. MGZTOG

2. Lurra eta Ilargia

· Lurraren, Ilargiaren eta Eguzkiaren mugimenduak. Horiei zuzenean behatzea (eguna eta gaua, urtarok): mugimendu horien eta izaki bizidunen arteko loturak.

· Lur planetaren ezaugarri nagusiak: geosfera, atmosfera, hidrosfera eta biosfera.

· Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: hipotesiak formulatzea, kontrastatzea, esperimentatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko.

· Ikerketa proiektua: Lurraren errotazioaren eraginak zeintzuk diren jakitea, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

3. GEOSFERA

· Geosfera. Lurrazala, mantua eta nukleoaren egitura eta konposizioa.

· Mineralak: propietateak, ezaugarriak eta baliagarritasunak.

· Arrokak: sailkapena, ezaugarriak eta baliagarritasunak.

· Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: behaketa, arazoak planteatzea, eztabaidatzea, hipotesiak formulatzea, kontrastatzea, esperimentatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko.

6. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko. **HG MGZTOG**

7. Ea lan zientifikoari dagozkion trebetasunak eta gaitasunak antolatzen, aplikatzen eta barneratzen dituen. 8. Ea formulatzen dituen hipotesiak, eta ea egiaztatzen dituen esperimentazioaren edo behaketaren eta argudiaketaren bitartez

8. Ea formulatzen dituen hipotesiak, eta ea egiaztatzen dituen esperimentazioaren edo behaketaren eta argudiaketaren bitartez.

2. Lurra eta Ilargia

1. Ea definitzen dituen Lurraren, Ilargiaren eta Eguzkiaren mugimenduak, eta ea lotzen dituen eguna eta gauarekin, urtaroeekin, itsasaldiekin eta eklipseekin. **MGZTOG**

1.2. Ea egoki interpretatzen dituen, grafiko eta eskemetan hainbat fenomeno, esaterako, Ilargi-faseak eta eklipseak, eta ea lotzen dituen Lurra, Ilargiak eta Eguzkiak duten kokapen erlatiboarekin. **MGZTOG GD**

2.1. Ea identifikatzen dituen hiztegi zientifikoaren termino ohikoenak, eta ea egoki komunikatzen den ahoz zein idatziz. **HG MGZTOG**

3. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko. **HG MGZTOG GD**

4. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko. **MGZTOG**

5. Ea formulatzen dituen hipotesiak, eta ea egiaztatzen dituen esperimentazioaren edo behaketaren eta argudiaketaren bitartez. **MGZTOG**

3. GEOSFERA

1. Ea bereizten dituen Lurrean gehien aurkitzen diren terrialak, eta ea interpretatzen duen nola dauden banatuta Lurreko geruza handietan. **MGZTOG**

1.2. Ea deskribatzen dituen lurrazalaren, mantuaren, nukleoaren eta horiek osatzen dituzten materialen ezaugarri orokorrak, eta ea lotzen dituen ezaugarri horiek kokpenarekin.

MGZTOG

2. Ea ezagutzen eta kategoriatan sailkatzen dituen mineralen eta arroken ezaugarriak, bereizten dituen horien erabilera ohikoenak, eta ea nabarmentzen dituen euren garrantzi ekonomikoa eta kudeaketa iraunkorra. **MGZTOG**

2.1 Ea identifikatzen dituen mineralak eta arrokak,

· Ikerketa proiektua: Margarina erabilia, geosferaren geruzak dentsitatearen arabera bereiztea, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

4. ATMOSFERA

· Atmosfera. Atmosferaren konposizioa eta egitura. Berotegi-efektua. Kutsadura atmosferikoa. Izaki bizidunentzat atmosferak duen garrantzia.

· Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: behaketa, eztabaidatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko.

· Ikerketa proiektua: likenak aztertzea kutsaduraren lekuko gisa, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

5. HIDROSFERA

· Hidrosfera. Ura Lurrean: solido, likido eta gas egoerak. Ur geza eta ur gazia: izaki bizidunentzako garrantzia. Ur gezaren eta gaziaren kutsadura.

· Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: eztabaidatzea, hipotesiak formulatzea, kontrastatzea, esperimintatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko.

· Ikerketa proiektua: uraren bero ahalmen handiari behatzea, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

elkarrengandik bereizten dituzten irizpideak erabili.

MGZTOG

3. Ea egoki erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan.**HG MGZTOG**

4. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko.**HG MGZTOG GD**

4. ATMOSFERA

1.Ea analizatzen dituen atmosferaren ezaugarriak eta konposizioa, eta baita airearen propietateak ere.**MGZTOG**

1.2. Ea identifikatzen eta justifikatzen dituen, argudio errazekin, zein diren izaki bizidunentzat atmosfera babesa izatearen arrazoiak.**MGZTOG**

2. Ea ikertzen eta informazioa biltzen duen gaur egungo ingurumeneko kutsaduraren eta horren ondorioen arazoei buruz, eta ea garatzen dituen konpontzen laguntzeko jarrerak.**MGZTOG**

3 . Ea badakien atmosferaren babesa zein garrantzitsua den izaki bizidunentzat, eta ea hausnartzen duen gizakiaren jardunak atmosfera horretan dituen eraginei buruz. **MGZTOG GSZ**

4.. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko. **HG MGZTOG GD**

5.Ea parte hartzen duen, eta aintzat hartzen eta errespetatzen dituen bakarkako lana eta taldekoa.**MGZTOG GSZ**

5. HIDROSFERA

1. Ea deskribatzen dituen uraren propietateak eta zein garrantzitsua den bizia izan dadin.**MGZTOG**

2. Ea badakien interpretatzen Lurreko ur banaketa, uraren zikloa eta gizakiak ematen dion erabilera.**MGZTOG IIG**

3. Ea balioesten dituen uraren kudeaketa iraunkorra eta hainbat jarduera bakarkako eta kolektiboak: kontsumoa gutxitzea eta ura berrerabiltzea bultzatzeko.**MGZTOG GSZ**

4. Ea justifikatzen eta argudiatzen duen zein garrantzitsua den geza eta gazia zaintzea eta ez kutsatzea.**MGZTOG GSZ**

5. Ea egoki erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan. **MGZTOG GSZ**

6. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko . **HG MGZTOG GD**

6. BIOSFERA

- Biosfera. Lur planeta bizitzeko egokia izatea ahalbidetu zuten ezaugarriak.
- Zelula izaki bizidunen oinarriko unitate gisa identifikatzea. Animalien eta landareen zelula prokarioto eta eukariotoen oinarriko ezaugarriak. Banako zelulabakarrak eta zelulaniztunak
- Bizi funtzioak: nutrizioa, erlazioa eta ugalketa.
- Izaki bizidunak sailkatzeko irizpideak ezagutzea. Espezie kontzeptua. Nomenklatura binomiala.
- Izaki bizidunen erreinuak.
- Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: behaketa, eztabaidatzea, hipotesiak formulatzea, esperimendatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko.
- Ikerketa proiektua: zelula mintz baten funtzionamendua, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

7. MONEROEN, PROTISTOEN ETA ONDDOEN ERREINUAK

- Izaki bizidunen erreinuak.
- Moneroen, Protistoen eta Onddoen ezaugarri anatomiko eta fisiologikoak identifikatzea, adibideak baliatuz.
- Ale batzuk ezagutzea, lupa edo mikroskopioa erabiliz.
 - Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: behaketa, eztabaidatzea, hipotesiak formulatzea, kontrastatzea, esperimendatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek aztertzeak sortzen dituen arazoak gainditzeko.
- Informazioa lortu eta hautatzea, horretarako ingurumena aztertu eta laginak jasota.
- Laborategiko portaera, lan eta segurtasun arauak ezagutzea. Biologia laborategian erabiliko den oinarriko materiala. Lupa binokularra eta mikroskopio optikoa: atalak eta erabilera.
- Ikerketa proiektua: Legamia bizirik dago?. esperimendu bat disenatzea konprobatzeko.

8. LANDAREEN ERREINUA

- Landare talde nagusiak ezagutzea: goroldioak, iratzeak, angiospermoak eta gimnospermoak.

6. BIOSFERA

1. Ea bereizten dituen Lurra guk ezagutzen dugun moduko bizi garatzeko planeta berezia egiten duten ezaugarriak.MGZTOG
2. Ea badakien izaki bizidunak zelulaz osatuta daudela, eta ea zehazten dituen materia bizigabetik bereizten dituzten ezaugarriak.MGZTOG
3. Ea alderatzen dituen zelula prokariotoa eta eukariotoa, euren analogiak eta oinarriko berezitasunak ondorioztatuz.MGZTOG
4. Ea deskribatzen dituen izaki bizidun guztientzat komunak diren funtzioak, nutrizio autotrofoa eta heterotrofoa bereiziz.
5. Ea ulertzen eta bereizten duen bizi mantentzeko funtzio bakoitzaren garrantzia.
6. Ea ezagutzen dituen talde taxonomiko nagusien ezaugarri morfologikoak.MGZTOG IIG
7. Ea irizpideak ezagutzen dituen izaki bizidunak kategoriatan sailkatu eta animalien eta landare ezagunen eredu taxonomiko nagusiak identifikatzeko.MGZTOG
8. Ea animaliak eta landareak ezagutzeko behatzen eta esperimendatzen dakien.MGZTOG
9. Ea egokiAN erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan. HG MGZTOG

7. MONEROEN, PROTISTOEN ETA ONDDOEN ERREINUAK

1. Ea bereizten dituen Moneroen, Protistoen eta Onddoen talde nagusiak.MGZTOG
2. Ea egoki erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan.MGZTOG
3. Ea bilatzen, hautatzen eta interpretatzen duen informazio zientifikoa, eta ea baliatzen duen informazio hori iritzi propioa osatzeko, zehaztasunez komunikatzeko eta ingurumenari buruz argudiatzeko.HG MGZTOG GD
4. Ea lanen planifikazioa autonomiaz egiten duen, laborategiko oinarriko tresnak baliatuz, bere behaketak deskribatuz eta jarraitutako prozesua argudiatuz. MGZTOG GD
 - 4.1.Ea identifikatzen dituen organismo zelulabakarrak eta zelulanitzak, horretarako hainbat euskarri erabiliz.HG MGZTOG
5. Ea erabiltzen dituen lupa binokularra eta mikroskopio optikoa, eta ea behaketak deskribatzen badakien.MGZTOG
6. Ea, gidoi baten laguntzarekin, laborategi edo landa praktikak egiten dituen, segurtasuna bermatuta, eta ea praktikak balioesten eta emaitzak interpretatzen dakien.MGZTOG
 - 6.1. Ea laborategi edo landa praktikaren bat egiten duen, protokolo egokiei jarraituz.MGZTOG
7. Ea parte hartzen duen, eta aintzat hartzen eta errespetatzen dituen bakarkako lana eta taldekoa.

8. LANDAREEN ERREINUA

1. Ea ezagutzen dituen landareen talde taxonomikoen ezaugarri morfologiko nagusiak.MGZTOG IIG
2. Ea irizpideak ezagutzen dituen landareak kategoriatan sailkatu eta landare ezagunen

- Bizi funtzio nagusiak: nutrizioa, erlazioa eta ugalketa ezagutzea eta ulertzea.
- Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: behaketa, arazoak planteatzea, hipotesiak formulatzea, kontrastatzea, esperimintatzea, emaitzen berri ematea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek azterteak sortzen dituen arazoak gainditzeko.
- Ikerketa proiektua: landareen fotosintesia, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

9. ANIMALIEN ERREINUA: ORNOGABEAK ETA ORNODUNAK

Testuliburuan bi gai berezitueta azaltzen dira, baina bateratuak landuko ditugu lan monografiko eta horma-irudien bidez.

Honek ez ditu helburu orokorren aldaketarik moldaketa bat baizik.

.....

· Animalia ornogabeen eta ornodunen ezaugarri anatomiko eta fisiologikoak identifikatzea, adibideak baliatuz: poriferoak, knidarioak, anelidoak, moluskuak, ekinodermoak eta artropodoak; eta euren garrantzia baliabide iturri gisa. Baita ere arrainak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak; adibideen azterketatik abiatuta

· Metodologia zientifikoa. Honako etapa nagusi hauek ditu: behaketa, hipotesiak formulatzea, esperimintatzea, etab., fenomeno naturalak hobeto ulertzeko, eta horiek azterteak sortzen dituen arazoak gainditzeko.

· Informazioa lortu eta hautatzea, horretarako ingurumena behatu eta laginak jasota.

· Laborategiko portaera, lan eta segurtasun arauak ezagutzea. Biologia laborategian erabiliko den oinarritzko materiala.

· Ikerketa proiektua: inurrien komunikazioa ikertzea, metodologia zientifikoaren ezagutza praktikan jartzeko.

.....

Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu.

eredu taxonomiko nagusiak identifikatzeko.**MGZTOG**

3. Ea deskribatzen dituen landareen talde taxonomiko handien ezaugarri orokorrak, eta ea azaltzen duen zer garrantzi duten izaki bizidunen talde osoan.**MGZTOG**
4. Ea zehazten dituen landareen bizi funtzioak, eta ea jabetzen den zer garrantzi duten bizitarako, orokorrean.**MGZTOG**
5. Ea zehazten duen nutrizio autotrofoaren prozesua, eta ea lotzen duen hori izaki bizidun guztientzat duen garrantziarekin.**MGZTOG**
6. Ea egoki erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan.**HG MGZTOG**
7. Ea lanen planifikazioa autonomiaz egiten duen, laborategiko oinarritzko tresnak baliatuz, bere behaketak deskribatuz eta jarraitutako prozesua argudiatuz.
- 8.

9. ANIMALIEN ERREINUA: ORNOGABEAK ETA ORNODUNAK

1. Ea ezagutzen dituen animalia ornogabeen eta ornodunen talde taxonomikoen ezaugarri morfologiko nagusiak.**MGZTOG**

2. Ea irizpideak ezagutzen dituen animalia ornogabeak eta ornodunak kategoriatan sailkatu eta ornogabe ezagunen eredu taxonomiko nagusiak identifikatzeko.**MGZTOG**

3. Ea bereizten dituen ornogabe eta ornodun talde bakoitzaren ezaugarri orokorrak eta bereziak, eta ea identifikatzen dituen, hainbat tresna baliatuz.**MGZTOG**

4. Ea lotzen dituen bere inguruan ohikoak diren ornogabeak eta ornodunak, dagozkien talde taxonomikoekin.**MGZTOG**

5. Ea erabiltzen dituen animalia ornogabeak eta ornodunak identifikatzeko gako errazak.**MGZTOG IIG**

6. Ea egoki erabiltzen duen hiztegi zientifikoa, testuinguru jakin batean eta berari dagokion mailan.**HG MGZTOG**

7. Ea kritikoki baliatzen duen informazioa, hainbat iturritatik eskuratuta eta hainbat euskarri erabilita.**MGZTOG GD**

8. Ea lanen planifikazioa autonomiaz egiten duen, laborategiko oinarritzko tresnak baliatuz, bere behaketak deskribatuz eta jarraitutako prozesua argudiatuz.**MGZTOZ**

.....

Euskararen erabilera kontuan hartua izango da ebaluazioa egiterakoan.

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguraren daturik errelenbanteenak agertuko dira].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. arazo egoera / Situación problema 1 (URTEAN ZEHAR: GAIAK: 2. Lurraren higiduraren ondorioak, 4. atmosfera, 6. Biosfera, 8. Landareak, 9. eta 10. Animaliak)**

FENOLOGIA:

Testuingurua: Fenologia Klimak eta urtaroen urtetik urterako gorabeherek izaki bizidunetan duten eragina aztertzen duen zientzia da.

Ataza: Eguraldiarekin eta zuhaitzekin, baita lore eta erlastekin zer gertatzen ari den ikertu behar dugu.

- **2. arazo egoera / Situación problema 2 (1. EBALUAKETA: 3. Gaia: Geosfera)**

Arroken eta mineralen erabilpenak:

Testuingurua: Pentsa dezagun momentu batez zer gertatuko litzatekeen gure bizitzan mineralak eta hauek dituzten metalak desagertaraziko bagenu: altzairu, porlan eta beira gabeko eraikuntzak bertanbehera jausiko lirakeke, ez genuke ez bateriarik ez pilarik ez paperik izango, ez genuke etxetresna elektrikorik izango, besteak beste. Gogora dezagun, bestela, esaldi ospetsua: ereiten ez dena meatzetik datorkigu.

Problema: Geologo bat zara eta "Euskalgeo" izeneko aldizkari batetik lan bat egitea eskatu dizute: Mineralen eta arroken erabileren gida bat egin Euskalerrian dauden arroka eta mineral garrantzitsuenak bereiztuz.

Gida honetan agertu behar den informazioa:

- Arroka edo mineralaren argazkia
- Mineralen propietate fisiko garrantzitsuenak
- Arroka mota
- Mapa batetan kokatu jatorria.
- Gaur eguneko erabilerak

Xedea: Arroka eta mineralen eguneroko bizimoduan duten garrantzia ohartaraztea eta aplikazioak zeintzuk diren ikustea.

Helburuak:

- Arroka eta mineralen arteko ezberdintasuna ezagutzeko
- Mineralen propietateak
- Arroka motak
- Arroka eta mineralen erabilpenak
- Euskalerrian dauden arroka eta mineral garrantzitsuenak
- IKT erabiltzea
- Ikertzen ikasi internet erabiliz
- Norbanako ekimena eta sormena landu

Ataza: Mineralen eta arroken erabileren gida bat egingo duzu, horretarako hurrengo informazioa agertu beharko da:

- Arroka edo mineralaren argazkia
- Mineralen propietate fisiko garrantzitsuenak
- Arroka mota
- Mapa batetan kokatu jatorria.
- Gaur eguneko erabilerak

- **3. arazo egoera / Situación problema 3**

Tenporak:

Testuingurua: Telebistan entzun duzu “Tenporen arabera udaberria nahiko suabe joango dela”. Arantzazun bizi den apaiz batek hala iragarri du. Urtaro bakoitzaren hasieran EITBko esatariak haren bila joaten dira iragarpen baten eske.

Problema: Eskolan ikasi duzu meteorologoen hurrengo egunetarako eguraldia iragartzen dutela. Horretarako, datu asko aztertzen dituzte, oso tresna konplexuen bidez lortutakoak. Baina, telebistan ikusi duzun bezala, badaude eguraldia iragartzen dutenak hainbeste traste erabili gabe. Ez dakizu tenporak zer diren ezta apaizak iragarpenerako zein metodo erabiltze dituen. Zuk, hori argitu nahi duzu.

Xedea: Sasi-zientzien metodoak eta zientzien metodoak bereiztea, komunikabideetan agertzen diren berriak ezagutuz, interpretatuz eta haietan esandakoa kritikoki ikertuz.

Helburuak:

- Iker daitezkeen arazoak identifikatzea.
- Interneten informazioa bilatzea.
- Eguraldiaren aldagaiak urtaro oso batean zehar kontrolatzea.
- Tresna zehatzen bidez jasotako datuak prentsan agertutako iragarpen baten datuekin konparatzea.
- Ebidentzia zientifikoak modu egokian argumentatzea.
- Zientzia eta sasi-zientzia bereiztea eta haiei buruzko iritsi propioa sortzea.

Ataza: Argudio testu bat idaztea ikastetxeko webgune edo blogean argitaratzeko. Ikasleek tenporak erabiltzen dituztenen iragarpenak eta zientifikoki jasotzen diren iragarpenak konparatuko dituzte argudio testu batean eta testua datu-taulez lagunduko dute.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

- **1.EBALUAKETA:**
- 1. Unibertsoa eta eguzki sistema
- 2. Lurra eta Ilargia
- 3. Geosfera
-
- **2- EBALUAKETA**
- 4. Atmosfera
- 5. Hidrosfera
- 6. Biosfera
-
- **3- EBALUAKETA**
- 7. Moneroen. Protistoen eta Onddoen erreinuak
- 8. Landareen erreinua
- 9. Animalien erreinua: ornogabeak eta ornodunak

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ikasleek sarritan koadernoak erabiliko dute. Bertan idatziko dute emango diren azalpenen laburpenak, ariketak, eskemak etab... Irakasleak banatutako orriak ere bertan itsatsiko dituzte.

Metodologia parte hartzekoa izango da. Irakasleak **azalpen teorikoak** emango ditu eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuz eta ikasleek liburuaren laguntzaz edo beste informazio iturriren bidez sortutako galderak erantzungo dituzte. Era berean kontzeptu mapak eta eskemak egitea landuko da.

Bestalde **buruketak** landuko dira. Hasieran ariketen ereduak ebatziko dira. Ikasleek etxean edo gelan burutuko dituzte ariketak eta gero klasean denen artean zuzenduko ditugu arbelean.

Laborategiko praktikak egingo dira eta dagozkion txostenak idatzi beharko dituzte. Ondoren lortutako emaitzak taldeka aman komunean jarriko dira ahoz.

Lan monografikoren bat ere egingo dute eta ahoz azalduko dute beste ikasleen aurrean.

Lan egiteko era: Bakarka, binaka, zein taldeka.

Dokumentalak ikusiko ditugu eta egunkarian agertutako **albiste zientifikoak** irakurriko ditugu.

Teknologia berriak erabiliko dira, ordenagailuaren bidez, aplikazio desberdinak (gmail, drive, powerpoint, classroom) eguneroko tresnak izango dira arbel digitalarekin batera, simulazioak, irudiak, azalpenak emateko.

Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.

Horrez gain, institutuak aurrera eramaten dituen proiektuak landuko ditugu:

-Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

- Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikokoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

- HTB: Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

- Hezkidetzeta (Aniztasuana): Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.

- Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

- Agenda 21: "Lurra zaindu" izenarekin, Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

- IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>Koadernoak lan egiteko tresna garrantzitsua izango da. Bertan, landutako guztia egongo da (hasiera ariketak, garapen eta finkapen ariketak, bakarkako zein taldeko lanak, bideo ikustaldietako galdetegiak, eskema, apunteak,...) Hau guztia hartuko da kontuan koadernoaren nota emateko orduan.</p> <p>Lanak eta proiektuak</p> <p>Klaseko lana eta parte hartzea kontutan hartuko da. Etxeko lanak egiten diren hala ez ere kontrolatuko da.</p> <p>Gai bakoitzean gutxienez froga idatzi bat egingo da.</p>	<p><u>Kalifikazioak:</u></p> <p>a) Notaren %60 froga idatziena izango da, gai bakoitzeko froga bat egongo delarik gutxienez. (Egindako frogen media egiteko, gutxienez 3 izango da kontrol guztietan)</p> <p>b) Notaren %30 eguneroko lanak izango dira: koadernoak, etxeko lanak, laborategiko txostena, eskatutako lanak etb...</p> <p>c) Notaren %10 jarrera izango da.</p> <p>Bataz bestekoa egiteko a ataletik lortutako balio 2,5 izan behar du gutxienez eta b eta c atalen batuketatik lortutakoa 2.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	
<p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p><u>Ebaluazioaren berreskurapena:</u> Ebaluazioaren nahikotasun azterketa egongo da; azterketa honetan ebaluazioan emandako gai guztiak sartzen dira. Honetaz gain hurrengo ebaluazioetan ikasleak izan lezakeen hobekuntza, eduki eta prozeduretan nahiz jarreretan, kontuan hartuko da.</p> <p><u>Ohiko azterketa:</u> Kurtsoaren azken nota hiru ebaluazioen batezbesteko nota izango da. 5 notara heltzen ez bada, ohiko azterketa egin beharko du.</p> <p>Azkenik, <u>ez-ohiko deialdian</u> kurtso osoaren materia sartzen da.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES